

**ZARAUZKO HIRIAREN SORRERAREN
750. URTEURRENA**

Zarautz, 1987-VI-19

ZARAUZKO FRANTZISKOTARREN MISIOLARI KOLEGIOA ETA EUSKARA

Zarautz, 1987-VI-19

A. Karmelo Iturria

Zarauzko Frantziskotarren komentua, jakina denez, Juan de Manzidor zenak eraiki erazi zuen 1610.urtean; Flandesetako erreinuetan Felipe III.aren Idazkaria zen bera. 1610.urtean eraikitzen hasi, eta handik zazpi urtetara, 1817.an bukatu zen. Eta orduantxe jarri ziren frantziskotarrak komentu berrian bizitzen.

Handik mende eta erdi aldera, 1746.urtean hain zuzen, garrantzi haundiko zerbait gertatu zen Zarauzko komentuan: Misiolari Kolegio-Seminarioa bihurtu zela, alegia. Eta horrek ia erabat aldatu zuela komentuko bizitza, esan genezake.

Zer ziren Misiolari Kolegio haiek? Badu Domingo Parrondo Aita frantziskotarrak liburu bat idatzia: "Historia de los Colegios-Seminarios de Misiones de la Regular Observancia de N.P.S. Francisco, existentes en esta Península de España", izeneko bera. Eta bertan dioenez, komentua haiek ez ziren urrutiko lurraldetara Misiolariak bidaltzeko sortuak, baizik eta bertako herrietan Misioak emateko; guk geuk ezagutu genituen Misio haiek herriz herri emateko, alegia.

Espainia osoan lehenengoa Sahagun herrikoa izan zen, Leonen. Gero beste hamahiru sortu ziren, bai Katalunian, Gaztelan, Galizian eta abar. Zarauzkoa azkenengoa izan zen, hamalagarrena. Eta hain zuzen ere, lehenengoa izan zen komentutik, Sahagunetik alegia, etorri ziren hemengoa sortzera. Hiru fraile heldu ziren, hirurak euskaldunak: Aita Juan Jose Suarez Palomo, Aita Migel Ezkurdia, biak donostiarrak, eta Aita Manuel de Moraza; hirurak Frantziskotarren Kantabria Probintziakoak. Aurretik baimena eskatua eta lortua zuten Aita Juan de la Torre-rengandik, hau ere Kantabria Probintziakoa eta Espainia osoko fraile frantziskotarren Komisario Nagusia. 1746.urteko Maiatzaren 21an ospatu zen Probintziako Kapitulu Gasteizko San Frantzisko komentuan eta hantxe erabaki zen Zarautzen Misiolari Kolegio berri bat sortzea. Aita Pedro Antonio Añibarro euskal idazle ospetsuak bere "Libro Becerro" eskuizkribu famatuan dioenez, eztabaida gogorrak izan omen ziren Kapi-

tulu hartan zein komentu aukeratu erabakitzeke. Eta azkenean, inork berea utzi nahi ez eta, Mateo de Aranburu Aitak erabaki omen zuen Zarauzkoa uztea, komenturik “behartsuena eta gosetiena” hain zuzen, “el Convento más miserable y famélico” de la Provincia. Halaxe dio. Eta datu interesgarri bat gaineratzen du: argizari faltaz, Zarauzko komentuko fraileek Santa Maria Parrokiara joan behar izan ohi omen zuten Meza ematera.

Aita Jose de la Torre Probintzialak —lehen aipatutako Juan de la Torre-ren anaiak— gutun bat idatzi zien Probintziako gainontzeko komentuetako fraileei Zarauzko hau Misiolari Kolegio bihurtu zela esanez, eta hona etorri nahi zutenek beren izena emateko adieraziz. Hemezortzi mezako fraile bildu omen ziren: hamar gipuzkoar, hiru bizkaitar, bi arabar eta hiru “montañés” edo kantabriar. Kantabria Probintzia orduan lau nazioek osatzen bait zuten: Gipuzkoak, Bizkaiak, Arabak eta “Montañak”, hau da, Santander edo Kantabriak.

1746.urteko Irailaren 8an. Ama Birjinaren Jaiokunde egunez, Santa Klarako komentuan bildu omen ziren fraileak eta handik prozesioan etorri Joan Bataiatzaile Santuaren elizara, gorputzean Misiolari ezaugarriak zeramatzatela, bularrean gurutzea eta eskuinean makila bat, gainean gurutze txiki bat zutelarik: elizara helduta, Juan Jose Suarez Palomo Aita Nagusiak sermoia egin omen zuen, Misiolari Kolegio berriak Zarauzko herriari eta ingurukoei egingo zien ona aipatuz.

Baina, zer ikusirik du Zarauzko Misiolari komentu honek euskararekin eta euskal literaturarekin? Hori azaltzera goaz.

Eraiki eta handik urte batetara, erabaki hau hartu zuten Bilboko San Frantzisko komentuan egindako Probintziako Kontseilari bileran, 1747.urteko Urriaren 30.egunean: “Por quanto está determinado que el Seminario de Zarauz se compusiese de Religiosos con igual de las cuatro naciones según la Ley Municipal, determinaron que se suplique a nuestro Rvmo. Padre Comisario General para que dicha ley se derogue y se explique la cláusula “en cuanto fuera posible” dejando libertad al Seminario para que puedan recibir a cualquiera que tuviese cualidades, sin atenciones a naciones y número, con preferencia de las Bascongadas en caso de superabundancia o falta de pretendientes, concediéndoles asimismo facultad para admitir confesores Bascongados que coadyuven a los Padres en el Confesionario y otros ejercicios”. (Zarauzko komentuko Artxiboa. Liburu saila. 4.liburua, 206 r.folioa). Ikusten denez, bada, euskaldun sermolariak eta aitorleak eskatzen ziren gehienbat.

Eta bazuten non lan egin sermolari edo Misio emaile eta aitorle haiek. Aita Añibarrok berak eta bere ondorengoek, “Libro Becerro” deritzan eskuizkribu famatu horretan, Zarauzko Misiolariak eman zituzten Misioak banan-banan izendatzen dituzte, non edo zein herritan, noiz

edo zein egunetan eta nortzuk emanak izan ziren zehatz-mehatz azalduz: Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan, Araban eta Montañan ere bai; hemen erdaraz noski, baina beste herri guztietan edo gehienetan euskaraz. Esparru zabala benetan Zarauzko Misiolariak bere esku zutena. Herrien izendatze zerrenda 1814.urtean hasten da eta 1839.ean bukatzen, fraileak komentutik bidaliak izan ziren urtean hain zuzen. Urte hartan bidaliak, aurretik eta geroago ere behin eta berriz bidaliak izan bait ziren. Ez noakizue orain hemen Zarauzko Misiolari Kolegioaren historia osoa egitera, oso luze joko bait luke. Puntu batzuk azpimarratu besterik ez dut egingo.

Jakina da, orduko istilu famatu bat dantzen gorabeherak izan zirela. Sermolari batzuk dantzen aurka azaldu ziren argi eta garbi: hala nola, Aita Palacios bat eta Aita Añibarro bat —biak Zarauzko Misiolari komentukoak—, Aita Mendiburu jesulaguna, Santa Teresaren Aita Bartolome karmeldarra, eta abar. Aita Manuel Larramendi andoaindarra eta jesulaguna, berriz, ez da haien aurka agertzen eta nolabait haien alde jartzen da eta Zarauzko Misiolariak ere aipatzen ditu “Corografía de Guipúzcoa” bere liburu ezagunean (“Corografía de Guipúzcoa”, Manuel de Larramendi, J. Ignazio Telletxea Idigorasen edizioa; Donostia, 1969, 241 or.). Juan Ramon de Iturriza bizkaitar historilariak ere aipatzen ditu Zarauzko Misiolariak “Historia General de Vizcaya” bere liburuan. (“Historia General de Vizcaya”. Juan Ramon de Iturriza y Zabala, en Berriz, año de 1785; Barcelona, 1884, p. 59).

Zarauzko Misiolariak erabiltzen zuten euskarari buruz ere, nahiko argibide badugu, eta ez nolanhikoak. Ezagunak dira Aita Larramendiren hitzak eta ez noakizue errepikatzerara. Nikolas Ormaetxea, “Orixe”, zenak ere goraiatzen ditu Zarauzko frantziskotarrak, “Euskal Eснаlea” aldizkarian, 1927.urtean, argitara eman zuen “Euskal-Literaturaren atze edo edesti laburra” idazlanean. Honela dio: “Zarautzen badugu Komentu bat Euskalerraren eta euskeraren alde lan poliki egin diguna. Añibarro ta Ubillos ta Zabala daduzkat gogoan”. Hemen ohartxo bat egin beharra dago: Aita Ubillos ez zen Zarauzko Misiolarietakoa izan. Eta azkenik, Juan Antonio Mogel idazle ezagunak behin eta berriz goraiatzen ditu Zarauzko Misiolariak eta bereziki Aita Añibarro eta Aita Palacios “Confesino ona” bere liburuxkan, bai hitzaurrean, bai bukaeran.

Zarauzko Misiolari Kolegioko euskal idazleak

Zarauzko frantziskotar Misiolariak ez ziren herriz herri Misioak ematen bakarrik ibiltzen. Komentuan bertan zeudela, beren gelako bakardade santuan, sermoiak euskaraz idazten ere baziharduten. Eta beste liburuak ere bai. Horrela bildu zen urtetan zehar frantziskotar euskal idazle talde

polita. Eta ez nolanhiko idazleak, ikusiko dugunez. Zaharrenetarik hasita, banan-banan aipatuko ditut.

1. **Aita Pedro Antonio Añibarro** (1748-1830). Hona Aita Villasante Euskaltzainburuak *Historia de la Literatura Vasca* bere liburuan dioena: “El P. Añibarro es el primero y más alto representante de los vascófilos y escritores vascos que produjo el convento franciscano de Zarauz al tiempo que dicho convento revestía la modalidad peculiar de Colegio de Misioneros Apostólicos”. (*Historia de la Literatura Vasca*, Fr. Luis Villasante; 2.^a edición; Editorial Aranzazu, 1979). Bizkaiko Arratiako Areatzan jaioa, hamasei urte zituela egin zen fraile Bilboko San Frantzisko komentua haundi eta famatuan, nonbait. Apaiz ikasketak Bilbon bertan eta Arantzazun egin bide zituen. 1790.urtean, 42 urte zituela, etorri zen Zarauzko komentura, berberak eskaturik. Hementxe bizi izan zen 1830.urtean hil zen arte. Zahartzaro beneragarrian, 82 urte zituela, hil ere. Euskal idazle on eta ugaria izan genuen Aita Añibarro. Bizkaierazko klasikotzat jotzen da Juan Antonio Mogel eta beste batzurekin batera. Asko eta ongi idatzi zuen Aita Añibarrok. Hona bere idazlanen zerrenda, osoa ez bada ere: 1) *Escu liburua, eta berean eguneango cristiñau cereguiñac*, Tolosa, 1802. Hauxe da bere liburuxkarik ezagunena eta famatuena. Azkenengo aldi honetan, liburu hau —eta Añibarroren besteak ere bai— gehien aztertu duena Blanca Urgell andereño gazte eta azkarra dugu. Behin baino gehiagotan argitaratua izan da liburuxka hau. 2) *Cristau dotriña... Nafarroaco euscaran*. Asteteren dotrina ezagunaren itzulpena. Iruñea, datairik gabe. 3) *Lora-Sorta Espirituala ta Propositu Santuac vicitza barri bat*. Aita Palacios ospetsuak idatzitako bi liburuxken itzulpena eta birmoldaketa da. 4) *Curutze Santearen, Aita Gure eta Ave Marien ganeco Eracusal-diac*. Durango, 1879. 5) *Guero Guero*, Axularren liburu ezaguna, bizkaierara itzulia. Hiztegi bat eta Gramatika bat ere baditu. Eta eskuizkribu pila bat ere bai, Zarauzko komentuko Artxiboan gordetzen dena. Hiru eskuizkribu dira garrantzizkoenak: 1) *Misionari Euscalduna, Cristiñau-Dotri-na, ta Sermoiac Bizcai-errietan iracasten*. Bi tomo lodi dira, Misioetan emandako predikuez osatuak. 2) *Jesu Christoren lau Evangelioac baterá alcarturic, D. Bernardo Lamy-c dacartzan erara, ta A. Felipe Sciok erderatu cituan leguez*. 3) *Nequea arinduric. Munduco crutze, neque, penac gozatu, laburtu, ta arinduteco gogarte santuac*. 15 “Iracurtza” (berak erabiltzen duen hitza duzue) ditu, 59 orrialdetan bilduak. Eskuizkribuak, denak bere letra txukun, garbi eta dotorez idatziak.

2. **Aita Juan Mateo Zabala** (1777-1840)

Aipatu besterik ez dut egingo, Aita Villasantek geroxeago fraile honi buruz hitzegingo bait dugu. Duela ia hamar urte, bere jaiotzaren bigarren

mende-hurrena zela eta, omenaldi berezi bat egin zitzaion Bilbon, 1977.urteko Irailaren 24ean. Bertan Aita Villasantek eta Aita Agustin Biain oñatiarrak (orduan Zarauzko komentuan Aita Nagusi zenak, alegia) hitzegin zuten Aita Zabalaren goraltzan. Zarauzko komentuko Artxiboan gordezen dira haren eskuizkribu batzu.

3. Aita Jose Kruz Etxeberria (1773-1853)

Oiartzungo semea, 1801.urtean heldu zen Zarauzko komentura. Bertako Misiolarien eta emandako Misioen zerrendan, herriz herri gehienetakoa ibili ohi zen frailea izan zen. Lau euskal liburu ditu: 1) *Devociozco vicitzaraco sarrera San Francisco Salesec atera, eta Aita Frai Jose Cruz Echeverriac... euscaraz ipini duena*. Tolosa, 1821. 2) *Ongui bizitzeco ta ongui iltececo laguntza*. Tolosa, 1824. 3) *Cristau Doctriña Euscaraz*. Tolosa, 1828. Eta 4) *Jesusen imitacioco edo berari jarraitcen eracusten duen libruba*. Tolosa, 1829. Azkenengo hau Kempis ezagunaren liburuaren lehenengo itzulpena gipuzkerara.

4. Aita Kristobal Linaza (1806-1866)

Bizkaiko Lemoan jaio zen. 1832.urterako apaiza zen. Eta hurrengo urtean, 1833.ean azaltzen da Zarauzko Misiolari Mintegian. Euskal liburuxka ugarien egile da, hala nola, *Aldareko Sakramentuari Bisitak, San Frantziskori, Aita San Joseri, San Antonio Paduakoari, San Rokeri eta bederatziruurenak*; denak Tolosan argitara emanak, batzuk behin eta berriz gainera.

5. Aita Juan Jose Salazar (1807-1882)

Bizkaiko Zollon jaioa, Zarauzko komentuan bizi izan zen eta Aita Linazarekin batera ibili zen herriz herri Misioak ematen. Erbesteratua izan ondoren, Lizartzan azaltzen da apaiz laguntzaile bezala. Komentuak berriro ireki zirenean, Tolosara joan, gero Arantzazura eta bertan hil zen. Liburuxka bat du: *Ama Birjinaren Congregacioco nescachentzat esculiburua*. Tolosa, 1894. "Atoz pekataria" Misio kantu ezagunaren egile ere bera du.

6. Aita Juan Domingo Unzueta (...-1870)

Abadinoko semea. Badu zenbait euskal lan, hala nola: "*Doandigoco berbaldiac*" (Santuen panegirikoak, alegia), Andres Iturzaeta apaizaren

Urtearen domeca guztiñetaraco berbaldiac liburuan argitara emanak. Bi tomo ditu liburu honek eta bi argitarapen izan zituen, bata Tolosan, 1894.ean, eta bigarrena Durangon, 1900.urtean. Aita Unzueta ren sermoiak tomo bakoitzean azaltzen direnen arteko erdiak edo izango dira. Horrezaz gainera, kristau dotrina ere badu: *Cristinaubaren doctriariaren explicacinua*, Valladoliden argitaratua.

Zarauzko komentua, euskal idazleen eskuizkribuen altxor eta gordailu

Ezin bukatu idazlan hau, Euskal Literaturan garrantzi berezia izan duen —eta oraindik ere baduen— puntu hau ikuitu gabe. Zarauzko komentua ez da euskal idazleen kabia eta sorleku bakarrik izan. Euskal idazle batzuren lanen edo eskuizkribuen gordeleku ere bada. Eta euskal kondairalari eta bibliografilari bat baino gehiago harritu da hori dela eta. Lehen aipatu ditugu Zarauzko komentuko Artxiboan gordetzen diren Aita Añibarro eta Zabalaren eskuizkribuak. Goazen orain besteak aipatzera, ez bait dira nolana hiko obrak.

1. **Juan Antonio Mogelen “Peru Abarka”.** Bizkaieraz idatzi izan den libururik ederrenetakoa noski, bizkaierazko klasiko bat. Aita Villasantek eta Aita Jose Inazio Lasa historigileak diotenez, Juan Jose Mogel euskal idazleak eman omen zion bere osaba Juan Antonioren eskuizkribu hau lehen aipatu dugun abadinotar Aita Unzueta fraileari, hemengo fraileok argitara emango zuten ustetan. Eta Zarauzko komentutik irten zen hain zuzen *Peru Abarka* liburua, Durangon, 1881.urtean argitaratua izateko.

2. **Joannes D’Etcheberri Sarakoaren eskuizkribuak.** Julio de Urquijo euskalari eta bibliografilari ospetsua izen zen eskuizkribu hauek Zarauzko komentuko Artxiboan aurkitu zituena, berberak luze kontatzen digunez. Bi liburu edo dira tomo bakarrean bilduak. Lehenengo orrialdeak falta direnez, Julio de Urquijoren ustez, lehenengo liburuak *Laburdiri Escuararen Hatsapenac* edo izango zuen titulua. Bigarrenak honela dio: *Escual-Herriari eta Escualdun Guztiei Escuarazco Hatsapenac Latin ikhasteco... J. D’Etcheberria Saraco Dotor Miricuac, 1712.urtea.*

3. **Aita Francisco Antonio Palaciosen eskuizkribua (1727-1804).** Oñatiko semea, Zarauzko komentuan hil zen 77 urte zituela. Aita Manuel Ventura Etcheberriak, haren bizitza erdaraz idatzi zuenak (eskuizkribu hau ere gure komentuko Artxiboan gordetzen da), eta Juan Antonio Mogelek ere bai, esaten digute euskaraz eta erdaraz ematen zituela Misioko Aita Palaciosen; erdaraz gehiago nonbait euskaraz baino. Dena den, Zarauzko komentuan gordetzen den haren eskuizkribua euskaraz idatzita dago, eta liburu lodikote bat da, sermoiez betea, baina letra ulergaitzez egina. 755 orrialde ditu, bi aldetara idatziak.

4. **Aita Jose Antonio Uriarteren eskuizkribuak** (1812-1869). Aita Uriartere oso ezaguna da euskal literaturan. Nahiz eta bera Zarauzko Misiolari Kolegiokoa ez izan, Zarautzen hil zen 1869.urtean. Bi eskuizkribu ditugu Artxiboan: 1) *Mariaren Biotzaren Bederatziurrena*, eta 2) Pio IX.a Aita Santuaren *Ineffabilis Bula*, Bizkaiko euskalkira itzulia.

5. **Eusebio Maria Azkueren eskuizkribuak**. Aita Uriarteren lagun handia izan zen. Bi eskuizkribu gordetzen ditugu: 1) *Euzkaria-Lenengo cantua*, eta 2) *Diez y ocho poesías euskerikas*.

6. Lehen aipatutakoez gainera, oraindik ere sermoi pila bat gelditzen da Zarauzko komentuan, eskuz idatzita. Aintzinako Misiolarien euskal sermoiez osatua dago pila hori. Eta duela gutxi, berorien artean, bi pitxi eder azaldu dira ustekabeen: 1) Aita Manuel Larramendik, 1737.urtean, Azkoitiko Parrokian, Ama Birjiñaren izenaren egunean egin-dako sermoia, eta 2) XVII. Mendeko Bulda bat bizkaieraz idatzia. Bi eskuizkribu hauek Joseba Andoni Lakarra irakasle prestu eta argiak aztertu ditu, lehenengoa *Anuario del Seminario "Julio de Urquijo"* urtekarian, eta bestea Koldo Mitxelenari eskainitako omenaldi liburuan. Eta besterik ez. Barka, arren, aspertu egin bazaituztet eta mila esker guztioi.

HAUR LITERATURA ETA TESTUGINTZA: ZARAUZKO IKAS- TOLAREN INGURUAN SORTU DEN MUGIMENDUA

Zarautzen, 1987, Ekainak 19

Anjel Lertxundi

Jose Luis Lizundia jaunak ihardunaldi honetarako lantxo bat eskatu zidanean eta Karmelo Iturriak joan zen mendean Zarauzko komentuak euskal literaturgintzan jokatu zuen papera aztertu behar zuela jakinaren ganean, paralelismo batetara eraman ninduen irudimenak: XIX. mendean Zarauzko Frantziskotarren komentu inguruan sortzen den euskaltzale mugimendu kulturalaren parekoa sortu dela azken urteotan Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolaren inguruan ere.

Euskaltzalekasunaren haritik gorpuzten bait da garaiotan Zarautzen euskal idazle andana garrantzitsua. Andana hartan kristau aszetika eta katekesiaren zerbitzutan arituko den bezala idazlegoa, jorratu nahi dugun gaitxoan haur literaturaren eta euskal testugintzaren eremutan jorratuko du lana idazle andana berriak.

Garrantzia duen bitxikeria antzeko bat: Belaunaldi hartan Zarauzko komentuak zarautzarrak ez ziren idazleak eragin eta egin zituen bezalatsu gertatu da Zarauzko ikastolarekin ere, neurri handi batean behintzat, arrazoi profesionalengatik hona bildu zen irakasle asko jatorriz zarautzarra ez zenez.

1970. urte inguru haietan Ikastola O.H.O.ko maila gorenetera iristen hasia zenean, irakaslegoaren kezkarik larrienetakoa testu eta irakurgai faltarena zen. Isaac Lopez Mendizabalen *Xabiartxo* irakur liburuak edo Iñaki Goikoetxearen *Giza soña* testuak bakarrik ezin zezaketen hamar urte inguruko ikasle haien jakin-egarririk ase. Apunte, testu, ipuin eta olerkiak ikasleen eskutaratzeko multikopia astintzetik aparte, gero ikastola guztietan arrakasta handia izango zuten "Irakur" izeneko lau irakurgai liburuak argitaratzeari ekin genion Josu Arrizabalaga, Maria Pilar Martiartu eta nik neuk. Urte haietan argitaratu zuen Imanol Urbietak ere *Haur kantarien birlorak* izeneko kanta bilduma. Ikastola guztietan gaur egun ongixe ezagutzen duten Joxan Ormazabalen "Astoa ikusi nuen betaurrekoekin" bertso andanarekin batera, Zarauzko ikastolako zenbait irakaslek

sorturiko olerki eta bertso musikatu zuen Imanol Urbietak, eta langintza haren lekuko dugu aipaturiko liburu edo antologia.

1973. urtean argitaratu zen Zarauzko ikastolako hurrek eskola garaian idatzitako *Haurra ipuin denean* ipuinen bilduma bitxia ere. Hor irakur daiteke bertan, beste lan xumeen artean, gaur sonako bertsolari dugun Andoni Egañaren “Doministiku asko egiten zuen agurea” izeneko ipuina ere.

Hastapen hauek bideratu zuten lehenxeago aipaturiko idazle andana. Urte haietan langintzan hasi zen idazlego honek ez du orain arte haur literaturaren edo testugintzaren eremua baztertu eta, gaur egun ere, sormen lanetan nahiz itzulpengintza ikus ditzakegu gure haurren irakur zaletasunari eta egarriari asegarriak eskaintzen.

Idazle andana

Norbait kanpoan geratuko zaigun arriskua onartuz ere, idazleen zerrenda xume bat bederen eskaini nahi genuke.

Joxan Ormazabal, zegamarra izanik, bost bat urtez aritu zen Zarauzko ikastolan hasierako urte haietan irakaskuntza lanetan. Orduan hasitako bideari jarraituz, sormenezko haur literaturgintzara makurtu da bereziki. Lan aipagarrienen artean, “Esaera zaharrak eta txiste berriak” bilduma, “Fernando Amezketarra”ren birmoldaketa pasadizu berriak eta erantsiz; “Margolin”, “Patxibusa”, “Kotti”, berriz, idazle honen sorkuntza liburuak ditugu. Itzulpengintzan aipagarria da Gianni Rodari italiarraren “Jolas egiteko ipuinak” liburuaren euskaratze lan bikaina.

Uberako Juan Martin Elexpuru dugu, berriz, “Fernando Plentxiarra”ren birmoldatzailea, irakasle hau ere bost bat urtez hemengo ikastolan aritua.

Garai beretsuan etorri zen Zarautza Daniel Urbistondo matxinbentarra eta itzulpen lanetara emana da azken boladan, bere itzulpenik aipagarriena Peter Härtling alemaniarraren “Amona” izeneko nobela delarik.

Axun Landa donostiarra da, berriz, andana honetako euskaldun berri bakarra. Zarauzko ikastolara etorri zenean euskara gutxi jakin arren, oso denbora gutxiren buruan (lau bat hilebetez) euskaldundu zen. Idazle honek sentiberatasun haundi batez hornituriko “Amets uhinak” ipuin bilduma eta “Txan fantasma” nobelatxoak eskaini izan dizkigu. Azken liburu hau Zarauzko Udaletxe honek haur literatura bultzatu asmoz urtero antolatzen duen “Lizardi Saria”ren irabazle suertatu zen 1982. urtean.

Neure “Tristeak kontsolatzeko makina” edo “Gizon kabalen piurak” ipuin bildumak edo “Maria Goikoarenak” saila aipatu beharrean aurki-

tzen banaiz ere, idazle andana honetan Jesus Mari Olaizola “Txiliku” dugu zarauztar peto bakarra, hamabi bat urtez Zarauzko ikastolan irakasle bezala aritua. Itzultzaile bezala, alemaniar pikareskaren lekuko bitxi dugun *Till Eulenspiegel* liburuaen itzultzaile aparta dugu eta sorkuntza lanetan, berriz, *Zozoa eta biok*, *Kaltxaberde*, *Tturku eta Gotzon* edo *Papartxuri eta Biboteluxe* liburuen egile estimagarri.

Testugintzara lotuz, lehen aipaturiko “Irakur” liburuetatik landa Zarauzko ikastolako irakasle zenbaitek Euskal Irakasleen Elkartearen babespean zer ikusi zuzena izan du “Zipristin” irakurgaien, “Hizkuntza” deituriko euskararen programakuntzaren edo “Kuxkux” izeneko giza eta zientzia alorreko testuen moldaketan.

Zenbait ezaugarri

Aipaturiko idazle hauetariko gehienak gaur egun ikastolan ari ez badira ere, hemen burututako hastapen haien segidako langintzan ari dira eta, nahiz eta idazle bakoitzak bere estilo eta idazkera propioa duen, araka daiteke haiengan zenbait amankomunezko ezaugarri.

Guk geuk hiru aipaturiko genituzke bereziki: haurraren munduaren ezagutza, fantasiaren erabilkera eta herri euskararenganako joera.

Lirikotasunaren bidetik batzuk, umorearenetik beste zenbait, bata nahiz bestea haurraren mundura inguratzeko eta mundu horretan klabe berezi horiez murgiltzeko modu apartak zaizkie. Axun Landaren kasuan emakumezko ikuspegi berezia lirikotasunez hornitzen delarik, kuadrila eta talde giroa umore tiantta batez eskainiz Joxan Ormazabal edo Txilikuren kasutan.

Fantasiaren erabilkera ere harma bikaina da idazle guzti hauen kasuan. Betaurrekoak jazten zituen Joxan Ormazabalen asto harengandik honantz, fantasia asko gorpuztu da idazle hauen ganbaretan eta gero liburutaratu. Gianni Rodariren fantasiarako gramatikaren bidetik kasu gehienetan, haren proposamen estetikoak bere eginez, nahiz Txilikuren kasuan errealismoak ere balukeen eraginik.

Hirugarren ezaugarria, berriz, herri euskararenganako fidelotasuna genuke. Euskara estandarra zaila suertatzen zaio haur euskaldun peto bati eta idazle guzti hauek hortaz jabetuz, baina inoiz ere uko egin gabe batasunari, begiramen aparta eskaini diote herri hizkerari. Adibide gisa, Txilikuk burututako *Till Eulenspiegel*-en itzulpena aipaturiko nuke. Jakina denez, testua anonimoa da eta alemaniar pikareskaren aitzindari. Herri hizkera eta gertakizunetik gertu dagoen testua izanik originala, zentzu bera eskaini nahi izan dio Txilikuk ere itzulpenari, modismo, esamolde eta jergen erabilkera joria eskainiz.

Amaitzeko

Honaino labur bildu ditugun datuak. Erakundeen alderdi kaxkarrenen maixeatzeari emanak bagara ere, heldu eta gorpuztu den Zarauzko Ikastola bezalako gure erakunde honen alderdi aipagarri bat plazaratu nahi genuen.

Erakunde batek fruituak ematen dituen heinean frogatzen du bere erantzunkizun nahiz premia soziala. Horregatik, orain artekoaz gain aipatu behar genuke Zarauzko ikastolatik irten ziren lehen hiru ikasle promozioetatik (130 bat ikasle inguru) 40tatik gora hautatu dutela lan gisa irakasletza eta hemengo ikastolan ikasle izandako horiek Euskal Herriko ikastoletan zehar daudela zabaldurik gaur, 1970. urte inguruko exkaxia haien lekuko, oraingo premien erantzule. Lizarratik Trapagara, Baionatik Gasteiza ikastetxe ugaritan lan egiten ari diren zarauztar gazte guzti horiek dira Ikastola erakundeak gizarte honi eskainitako fruitu helduena-ren lekuko.

Mila esker.

EUSKAL LIBURU ZAHAR BATEN AURKIKETA DELA ETA (1)

(Zarauzko udaletxean, 1987, Ekainak 19)

Fr. Luis Villasante

Zarauzko alkate jauna

Euskaltzainkideak

Jaun-Andreak:

Orain 10 urte Euskaltzaindiak omenaldi bat egin zion Bilbon Aita Juan Mateo Zavalari, beronen jaiotzako 200. urtea gogoratuz. Han orduan irakurri ziren lanik gehienak argitaratuak daude Euskaltzaindiaren aldizkarian, **Euskera**-n, alegia. Ez ditugu, bada, autore honi buruz, bai hor eta bai Euskal Literaturaren Historian, esanak dauden gauzak errepikatuko. Zarauzko Mixiolarien Kolegioko mixiolaririk jakintsuenetako bat izan zen, zalantza gabe, Aita Zavala bilbotarra.

Eta komentu honetako azken Guardianara. Bera hil zen urtean bertan itxi zen komentua, eta fraideak, esklaustrazioko legearen ondorioz, sakabanatu egin ziren. Sakabanatze horrekin gauza asko galdu zirela esan beharrik ez dago. Batzuk betiko galdu. Beste batzuk, urte askoren buruan, gutxien uste zen lekuetan, azaldu dira. Aita Añibaroren euskal Gramatika, argitaragabe zegoena, Loiolako Jesuitetan gorde zen, eta horri esker argitaratu ahal izan da. Añibarro beraren euskal hiztegia, hori bai, hemen Zarautzen bertan zegoen eta gaur argitaraturik dago. Axular-en *Gero*, Añibarrok bizkaierara itzulia, Hondarribiko Kaputxinoetan gorde da eta, osorik behintzat, ez da sekulan argitaratu. Añibaroren mixioetako sermoiak ere gorde dira, baina zatitxo bat bakarrik argitaratu zen.

Nik ere gaur hitzalditxo honetan oraintsu gertatu den aurkiketa baten berri eman nahi dut: Juan Mateo Zavala Aitaren sermoi-liburu ezezagun bat aurkitu dela, alegia.

(1) *Bibliogr.* "Juan Mateo Zabalararen omenaldia", **Euskera** (1977), 363-425.—VILLASANTE (L.), "El Colegio de Misioneros Franciscanos de Zarauz (1746-1840)", *Scriptorium Victorien-se* XXI (1974), 281-330.—VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, núms. 266-271.

Lehendik ezagutzen zen Irungo Pasionisten eskuetan zegoen Aita Zavalaren sermoe-liburu bat. Esan zidatenez, Lemoako apaiz batek erregalatu zion Pasionista gazte bati bere mezaberri egunean (2). Hortik antz emango diozue nola ibili diren dantzan eta esku batetik bestera euskarazko sermoe-liburuak. Horrek esan nahi du, halaber, estimatuak zirela, erabiliak eta baliatuak. Mezaberri eguneko opari bezala Pasionista gazte hari erregalatu zionak, nahiz eta liburuaren egilea nor zen jakin ez, bazekien halere baliozko zerbait ematen ziola.

Orain, berriz, Aita Zavalaren beste sermoe-liburu bat agertu da.

Nun eta Bermeoko Frantziskotarren komentuan. Aurkitu duenak ez du inolaz ere nahi bere izena sala dezadan, eta borondate hori, nahiz eta neure gogoz kontra, errespetatzera beharturik nago.

Arestian esan dudana bezala, euskarazko sermoe-liburu hauek, eskuz idatziak egonarren, onak baldin baziren behintzat, estimatuak izan ohi ziren eta eskutik eskura pasatzen ziren. Fraide zahar batek bere mendean erabili ondoren, gazteago zen bati utziko zion, baliagarri izan zekion. Fraide bat hiltzen zenean, besteak —gehienetan Aita Guardiana bera izango zen— hark utzitako gauzez jabetzen ziren eta hala gizaldi batetik bestera eskuz-esku pasatzen ziren sermoi-liburuok. Kontuan eduki behar da orduan ohiturak eta ideiak ez zirela hainbeste aldatzen, eta urteak igaroarren sermoiok beren balioa atxikitzen zutela.

Baita moralistek ere planteatzen zuten auzi hau: ea zilegiak ote ziren sermoe-liburuen jabetze edo erdi lapurreta hauek, baina nola diru konturik ez baitzebilen tartean, eta, beste aldetik, guzti hori Jainko-hitzen zabalkundeagatik zen, aski lasaiak izaten ziren honetan.

Liburu honek urtea lehen orrian garbi ezarria dakar: 1816. Hil, berriz, Juan Mateo Zavala 1840an hil zen. Ia ehun eta berrogetamar urte honetan nork daki zeinen eta zenbaten eskutan ibili den liburu!

Gure Probintziko bibliotekari nagusi den Aita Kandido Zubizarreta badabil honelako idazkiak biltzen eta sailkatzen. Bermeotik, hain zuzen, 5 moltzo handi ekarri ditu Arantzazura euskarazko sermoiekin osatuak. Sermoe solteak dira, inoiz egilea edo urtea dakartenak.

Baina Bermeon aurkitu direnen artean uste dut hau bakarrik dela liburu bezala arretaz josia zegoena.

(2) Ikus VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, 2. edizioa 245. orrialdean, 89 oharrean. Aita Basilio Pasionistak, 1971. urtean, Lemoako liburu hori egun batzuetarako utzi zidan. Nor zen egilea jakin nahi zuen. Kaligrafiatik garbi frogatzen zela nor zen egilea, hots, Aita Zavala, esan nion.

Bizkaieraz daude liburu honetako sermoiak, Juan Mateo Zavalaren guztiak bezala. Horregatik, beharbada, hobeki ulertzen da Bermeon aurkitu izana. Gipuzkoan erabiltzeko liburua ez zen hain egokia, Bizkaian, berriz, bai. Orduan normala eta ongi ikusia zen sermoia, nahiz eta beste batena izan, buruz ikasi eta zegoen bezala botatzea. Guzti honengatik diot aproposagoa zela liburu hau Bizkairako, Gipuzkoarako baino.

Eta aipa dezadan, bidenabar, liburu honek daukan bitxikeria bat: autorearen izena, lehen orrian zetorrena, ezabatua baitu, borratua. Beronen erabiltzailearen batek egingo zuen hori. Baina liburuaren aurkitzaileak ahalegin guztiak egin ditu lupa bidez etab. azpian jarria zegoena irakurtzeko, eta bai lortu ere. Horra zer dagoen azpian idatzia: *Fr. Juan Mateo de Zavala*. Gainera, liburuan agertzen den kaligrafia ederra Zarautzen dauden idazle horren beste autografo batzuekin gonbaratuz, ez da zalantza izpirik gelditzen. Juan Mateo de Zavala da, bada, liburu honen egilea.

Aurkitzaileak esan didanez, armairu baten gainean botata aurkitu zuen liburua, hautsez eta armiarma-sarez estalia. Horrek esan nahi du bazirela urte batzuk inork ez zuela jadanik liburua erabiltzen. Jakina, nahiz eta nekez, poliki-poliki ohiturak eta mentalidadea ere aldatuz joan ohi da, hizkuntza bera ere bai zerbait, eta liburu honen baliagarritasuna galdu edo, egingo zen neurri batean. Eta hala egon da baztertua seguraski zenbait urtez bere zerbitzua urte mordo luzetan egin ondoren.

Hona hemen liburuaren ezaugarriak, neurriak etab. Titulua: *Eusque-rasco Doctrina ta Sermoiac*. Orrialdeak: 226 (baina orrien zenbaketak ez dirudi guztiz zuzena). Neurriak: 200 × 150 mm. Edukinari buruz bi parte bereizi behar dira: Lehen parteak *Doctrina* du titulua, eta 120. orrialderaino heltzen da. Bigarreanean *Sermoiac* dira propioki. Beraz, lehen partekoek ikasbide edo erakusaldi tankera dute. Jainkoaren legeko aginduei buruz, Aitortzako sakramentuari buruz, etab. Bigarren partean arratsaldeko sermoiak (segur aski mixioetan ordu horretan egingo ziren). Berauen gaiak: azkenkiei buruz, pekatu mortalaz, graziaz, arimaren estimazioaz, Jesusen Pasioaz, Purgatorioko arimei buruz, bizimoldea aukeratzeaz, ezkonduen eta ezkontzeko asmotan daudenen obligazioez, etab.

Nik ez dakit idazti honen originaltasuna, mamiari dagokionez, zenbaterainokoa izango den. Baharbada ez handia. Juan Mateo Zavalak, beste askok bezala, gaiak orduan kurritzen zuten erdal liburuetarik hartuko zituen. Baina hori bai, berak arretaz eta txukun eratu zuen dena euskaraz euskaldun entzulegoaren izaera eta beharrak kontutan hartuz.

* * *

Begien aurrean dugu, bada, sermoe-liburu berri bat, aski zaharra, eta beronen egilea ez da nornahi: Fr. Juan Mateo de Zavala, euskal literaturaren aski ezagun dena.

Gizaki aldetik nolakoa zen Juan Mateo de Zavala? Estudio-gizona, euskarari buruz azterketa handiak egina, zentzuduna, kasik hotza, dotore-ria eta haize kontutan ibiliko ez zaizuna, artez eta zuzen beti mamira doana, gardena.

Bera bizi zen denboran ez zuen deusik argitaratu eta besteek argitara zezaten erraztasunak eman, hori bai. Aita Añibarroren *Escu liburua*-ren hirugarren argitalpena, esate baterako, bera Guardian zelarik egin zen. Gizon umila. Hala ere, beroni kontsultak egiten zizkion Fl. Lécluse, Frantziako gizon jakintsuak.

Juan Mateo hil ondoren, agertu ziren beronen *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*, “Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi” eta zenbait alegi edo fabula. Azkeneko hauek, gaisorik zegoen aldarte batean, denbora pasa edo, egin zituela aitortzen du berberak. Hain zentzuduna eta hotza izanarren, badirudi Astarloa apologistarekin zaletuxea zebilela. Ez da ahantzi behar honek bazuela anaia bat fraide eta euskarazko sermoi liburu argitaratuen egile dena, gainera Probintzial ere izana, etab. Larramendi eta Astarloaren obrei esker, maitemindu zen, bada, Zavala euskarakin. Umetatik zekien euskaraz, hori bai, baina apaiz-lanetan hasi zenean oso atzendua omen zebilen eta hizkuntza berreskuratu behar izan zuen. 1815. urtean etorri zen Zarautzera eta, hain zuzen, hurrengo urtean, 1816an, egiten du sermoe-liburu hau.

Orain aurkiberria den Juan Mateo Zavalaren sermoe-liburua eta lehendik ezagutzen zena —Lemoako apaizak Pasionista gazte bati bere mezaberri egunean erregalatu zion harako hura desberdinak ote diren ala ez, jakin behar da. Juanjo Zearretak badu haren fotokopia bat eta utzi egin dit egun batzuetarako. Lemoakoa deituko dugu bata eta Bermeokoa bestea, nahas ez gaitezen. Lemoakoan Dotrineac dira guztiak, eta —ohar-garri dena— Lemoako honetan “c” gabe idazten du Dotrina herri-fonetikari jarraituz —nahiz eta ez beti—; Bermeokoa, aldiz, “c”kin idazten du: *Doctrina*. Badirudi berriagoa edo geroagokoa dela Lemoakoa. Hitzaldi askoren bukaeran urtea dakar: 1822, 1825, 1833. Misio sailduko predikua dira, eta besteak bezala, bizkaieraz daude. Hamabost egun irauten zuten misioek, eta dotrinazko sermoiak, hau da, katekesi eratakoak, dituzue denak Lemoako honetan. Baina bietan gai antzekoak erabiliarren, bi liburuok ez dute zer-ikusirik bata besteekin. Autore berarenak direla eta gauza askotan egongo dela ahaidetasun bat bien artean, hori bai. Nik esango nuke Lemoakoa hobea dela. Geroagokoa ere bada, eta Zavala denboraren joanaz bere esperientzia eta euskararen ezagutza aberastuaz joango zen. Baina aitortu behar dut gonbaraketa sakon bat egiteko ez dudala astirik izan.

Politika aldetik nahasmendu handiak ezagutu zituen Juan Mateo Zavalak bere bizi-denboran. Frantziako Iraultza handia, Konbentzioko

gerra, Independentziako gerra, Cadizko Konstituzioaren inguruko istiluak, matxinadak, Karlisten gerratea, Desamortizazioko legea, etab. Gora-go esan dudan bezala, esklaustrazio aurreko azken Guardia izan zen bera Zarauzko Frantziskotarren komentuan.

Bere etxekoei egindako eskutitzetan —erdaraz daude— gertaera ilun hauek kontatzen ditu: “Yo he sido conducido dos veces a Guetaria entre bayonetas, y tenido allí en clase de preso con centinela de vista, por estar este pueblo (Zarauz) insolvente en sus contribuciones; otras dos, por medio de oficio, y tratado con menos rigor por otros motivos”. “Dos veces ha sido saqueado nuestro convento en irrupciones que hicieron los cristinos desde dicho Guetaria”.

* * *

Egin dezagun, azkenik, guri dagokigun galdera: hizkuntzaren aldetik, hau da, euskararen aldetik, zer moduzko balioa izan dezakete Juan Mateo Zavalaren euskal idazkiok?

Hitz gutxitan azalduko dut neure eritzia.

Hemen gabilta euskaldunok euskara bizirik atera nahirik, salbatu nahirik. Horretarako, eta besteak beste, euskarak behar du literatura bat sortu; euskarak behar du, alegia, gaurko kultura adierazteko gai edo trebe izan. Eta horretan ari gara. Baina badirudi behar den bidea aurkitzean ez dugula asmatzen eta hor gabiltzala ertz batetik bestera, behar den oreka edo kokagunea bila ezinik.

Gure mendean bertan —gorago jo gabe—, zenbat gorabehera eta mutur batetik bestera aldatzeak ez ditugu ezagutu! Mende honen lehen zatian garbizaletasunaren joera nagusitu zen. Neurri batean joera ona da. Hizkuntza batek behar du bere nortasuna eta identitatea atxiki. Baina muga guztiak gainditu ziren. Hizkuntzak diren bezalakoak dira eta hizkuntza batek mendeetan barna etxekotuak dituen erdaratiko hitz eta esapideak ezin bota ditzake kanpora hizkuntzari berari kalte egin gabe, eta kalte handia. Horregatik Euskaltzaindiak 1959. urtean Agiri bat atera zuen zer den euskal hitza erabakiz edo argituz. Euskarari aspaldidanik sustraitaua den hitza euskal hitza da, nondiknahi datorrelarik, eta ez da kanpora bota behar. Agiri hau beharrezkoa zen euskaltzale eta euskal idazleen artean puntu honi buruz zeuden oker-adituak argitzeko.

Baina gero zer pasatu da? Urek nunbait beste muturrera jo dute. Joan den urteko Urrian Euskaltzaindiak Lekunberrin Lexiko Berrikuntzaz gogoeta batzuk egin zituen. Zabarkeria nagusitzen ari dela: hori da, ia aho batez, han entzun zen erosta. Erdararen menpetasunean dela

gaurko euskal literatura, zabarkeria hutsez gaurko idazle askok hitzak eta esapideak beti gaztelaniatik hartu ohi dituztela, baremo bat jarri behar dela, etab.

Bai. Erdarak duen eragina ez dago ukatzerik, eta guk nahi ez nahi, hori hor dago. Baina gutxienez egin ditzagun ahaleginak hizkuntzaren nortasuna ere zaintzeko. Oreka bat behar da gorde, bi ertzetatik berdin urrun egoten dakiena.

Eta honetan, hain zuzen, uste dut Juan Mateo Zavala gidari guztiz ona dela. Ez du mende honen hasierako puristen gehiegikeriarik, baina ezta gure egunetako zabarkeriarik ere. Beti erabili ohi du euskal hizkuntza bat arretaz hautatua, herriak erabili ohi duen hoberenean sendo oinarritua. Eta badirudi hau dela bidea.

Euskaltzaindiak ongi daki euskara gaur bihurgune handi baten aurrean aurkitzen dela. Egundaino izan ez dituen bezalako aukerak aurkezten zaizkio gaur euskarari. Baina horrexegatik, hain zuzen, sekula izan ez dituen bezalako lanak eta eginbeharrak ditu, eta eginbehar horiei aurpegi eman behar die.

Euskarak ofizialtasun-maila lortu du —sekula santan lehen izan ez duena—, Administrazioan, Eskolan eta Irakaskuntzan sarrera egin du —lehen inoiz egin ez zuena—, euskalduna bera, lehen gehienbat nekazari-giroan bizi zena, orain hiritartu egin zaigu. Guzti horrek esan nahi du euskara sekula gaur arte adierazi behar izan ez dituen gauzak adierazi beharrean gertatzen dela eta hitz berrien beharrean ere badela. Gaur gizartean zabaldurik den kultura orokor hori adierazteko euskarak gaitu beharra duela, alegia.

Nola guzti hori egin, alde batetik euskararen nortasuna eta identitatea zainduz, eta, bestetik, gaurko kultura adierazteko behar diren hitzak bilatuz edo moldatuz? Hor da auzi honen gorabehera guztia.

Euskaltzaindiak uste du, printzipioz behintzat, euskarari ez zaiola aterik bat ere itxi behar. Gainera, lan hau guztiona da eta ez Euskaltzaindiarena bakarrik, nahiz eta bera izan gainbegiratzaille.

Hain zuzen, egun hauetan eta hemen Zarautzen, biltzen da Lexikologi Erizpideak Finkatzeko Euskaltzaindiak duen taldea. Une honetan hitz elkarketa edo konposaketa aztertzen ari da talde hau, bide horrek hitzen premia erremediatzeko izan dezakeen baliagarritasuna aztertzen.

Gaur eguneko beste eginbehar handi bat hara zein den: lehengo mendeetatik heldu zaigun ondarea biltzea, jasotzea, argitaratzea. Iturriak dira horiek, hizkuntzaren iturriak. Alde honetatik balio paregabea izan dezakete guretzat. Orain biltzen eta argitaratzen badira, bihar-etzi etorri-

ko dira aztertzaileak, horietarik behar den zukua aterako dutenak, erleek loreetatik egin ohi duten bezala. Eta horietako iturri jator bat dugu Aita Juan Mateo Zavala bilbotarra, hemen Zarautzen bizi eta hil zena.

ERASKINA

BERMEOKO SERMOE-LIBURUTIK HARTUTAKO PUSKAK

1.

Baricu-guren arratsalderaco yazkeraco Sermoia

Yangoicoac eguin dituzan gauza guztiac dirauscue ce neurri-baocoa dan bere guganaco caridadea ta ondo-gurea, bada guretzat eguin evazan gauza guztiac. Eguin bacituan Aingueruac, g.^e gordetzalletzat eguin cituan. Ceruac g.^e bici-lecutzat. Luurra bear guenduana emoteco. Eguzkia, irarguia, ta icerrac guri argui eguitemo. Berba baten, beguiratu daguigun gauza guztietara, eta aurkituco ez dogu gueuretzat eguin ez evan gauzaric. Orregaitic esaten deuscu san Paulo Apostoluac: “Zuenac dira gauza guztiac, nai dala mundua, nai dala bicitzea, nai eriotzea, nai aurean daucazuena, nai guero etorrico diranac. Orregaitic diño San Agustinec ce, Celan Yaungoicoac guizona eguin evan beretzat, alan guizonentzat eguin evazala gauza guztiac, eta orregaitic esan ditekeala Ygcoac beste arduraric euki ez davela, guizona zori-onecoa eguitea baño. Baya ah! andiac badira mesede mirarizco oneec, orregaitic bere cer icusiric eztauke bere Seme bacarra bidalduagaz eguin deuscuanagaz, cegaitic ece bere bicitzea curutze orretan emonagaz eracutsi euscun Yaun onec eracutsi al ditekean ondo-guraric, ta laztantasunic andiena, ece berac ciñoanetic ondo-gurearen anditasuna ez dala ecetan bere obato ezagututen, cein-da bicitzea adiskide gaitic emotean. Eta San Yoan Evangelisteac diño ce, onetan aguiri dala, Ygcoac deuscun maitetasuna ta caridadea, bada bere Seme bacarra biraldu evan mundura gu beragaiti bici gaitezan.

Andia izan bazan bada mundu au eguin evanean, Ygcoac eracutsi euscun asco-gurea ori eguitemo ez evan bere burua ecerchu bere necatu: bere esan bat asco izan tzan gauza guztiac ecer ecetic izatea artceco; baya ¿ceinbat costa ez yacon au mundu au barrizatea? ¿Ceinbat neke artu ez evan onetaraco? Ez eutsan asco erechi guizon eguin, ta gueure pecatuac bere ganean artuteari. Ez eutsan asco erechi guizon eguin abel-etse baten lasto artean, ez-eukiandienean, otzac ilic yaioteari. Ez eutsan asco erechi ogueta amairu urtean neke, lan, gose, egarri, ta icerdi artean bici izanari.

Ez eutsan asco erechi bere negargarrizco pasiño garratzean ainbeste azote, ta zauri artuteari. Ez eutsan asco erechi bere zanetaco odol guztia emon ta bere bicitzea galduteari: ezpada ce gura izan evan bere eriotza au izan cidin guizon batec igaro al leikean lotsagarriena, minbereena, ta gogorra. (Lehen orrialdetik).

2

Lenengo mandamentuaren ganeco icasbidea

Jaungoicoaren lelengo mandamentuac aguinduten deuscu, neure Cristiñauac, Jaungoicoa maite izaiteco gauza guztien ganean edo gauza guztia baiño gueiago. Eta esan gura dau mundu onetaco gauza guztia, diruac, ondasunac, osasuna, honrea, eta bear bada bicitzea bera bere galdu bear doguzala Jaungoicoaren contra pecatu eguin baño leenago, eta au eguingo dogu bere aguindu edo mandamentu santuac ondo gordeagaz. Baya orrezaz osterancean bere dago obligaciñoa Jaungoicoa maitetu ta ametaco: eta alan Alexandro zazpigarrenac eragotzi eban esatea, eztaucala guizonac iños bere, fede, esperanza ta caridadeco actoac eguiteco bearric edo peccaturic eguiten eztala eguño beré bere artean esan ez-arren sinistuten dituzala fedeco eguiac, edo Jaungoicoagan dauquela esperanza ta uste andia, eta Jaungoicoa bera biotz guztiti maite ta laztan dabela. Baita yaquin gura badozue nos dagoan Jaungoicoaren amodiozco actoac eguiteco obligaciñoa eta nos barrieztatu bear dan aren Magestadearen ondogurea, dirautsuet eguin bear dogula lenengo ezaurea euquiten, edo errazoiaren usura elduta bertatic, eta ar'or non gurasoric gueienac eguiten daben pecatu, euren seme-alabai orduraco doctrinea eracusten eusteusalaco. Emoiten dabe achaquia esanic, aita oraindio gazteac dira; guero aci ditezanean icasico dabe. Ah guraso zorigogorrecoac! gazteac dira zuen seme-alabac doctrinea icasteco; eta eztira, bear eztirean gauza asco icasteco. Zuec daucazue obligacinoac ceuben Seme alabai adinera edo usorraoera baño leen doctrinea eracusteco; bada ara eldu ezquerocoan dauque obligaciñoa, ta eguin bear dituez esan doguzan, fede esperanza ta caridadeco actoac... barriz celan eguingo dituez orduraco doctrinea icasi-ez-ic?

Bigarrenago eguin bear dira eriotzaco pelleburuan icusten bagara; irugarrenago Jaungoicoaren amodioaren contraco tentaciñoaren batec estututen gaituzanean, eta beste modutan ecin goia artu yaconeane. Diñot Jaungoicoaren amodioaren contraco tentaciñoaren batec estututen gaituzanean, bada orduan eztaue obliguetan fede edo esperanzaco actoac; ezpada caridadearenac. Balitz tentaciñoa fedearen contracoa orduan eguin bear da fedeco actoa, eta bada esperanzearen contracoa eguin bear da

esperanzazcoa, eta alan cien contra den tentaciñoa aren contraco actocac eguin bear dira pecatu mortalen bean. (13. orrialdetik).

3

Jaungoicoaren legueco bigarren aguinduaren: edo yuramentuaren ganeco icasbidea

1. Jaungoicoaren legueco bigarren mandamentuac aguinduten deuscuna da Jaungoicoaren icen santua ez utsean artzea, edo bardin dana, yuramentu alperrecoric edo falsoric ez eguitea. Modu ascotan yuramentu eguiten da; curutzeari, Justiciaco cigor, chuzo edo beste ezaugarri edo señaleari mun eguinagaz: Evangelio, curutze, edo Justiciaco cigorrear escua iminiagaz; esanagaz: *yuramentu eguiten deusat Jaungoicari, Trinidadeari, Jesucristori*, eta alan: Da beré yuramentu testigutzat ecartea araco criaturac, ceintzuetan arguiago, edo claruago aguiari dan Jaunaren ontasun eta anditasuna: esango balitz leguez: *Ama Virgineagaitic, ceruco Santuacgaitic, J. C.ren pasiñoagc., zazpi Sacramentu, edo Ceruagaitic*. Baya au esaten bada araco gauzac gaitic ceintzuetan eztan ainbeste ezagututen, edo eztan ain argui aguiari Jaungoicoaren gubanaco ontasuna, ezta yuramentu izango: esango balitz leguez: *escuan daucadan oguiagaitic; aushe emen daucadana leguez*. Ezta yuramentu esatea: *emenche nagoana leguez, Cristiñau nasana leguez* (edo c.º soy Cristiano) *guizon prestu nasanez, neure conciencian*, bada itzcune oneetan ezta Jaungoicoa testigutzat ecarten. Beste esacune modu bat, guztiz sarri euqui oi da aoan: *ondo daqui Jaungoicoac eguia diñodana*, edo *guzurric eztiñodana. Jaungoicoaren aurrean nago, eta daqui cer diñodan*, oneec dudazcoac dira. Esan gura badozu, ecin Jaungoicoaren yaquituria ganic ecer escutadu leitequeala, ezta yuramentu izango. Baya esan gura badozu, Jaungoicoa dacarzula, diñozun eguiaren testigu, yuramentu izango da.

2. Iru gauza (aurquitu) bear dira Yuramentuan, ona eta bear dan leezcoa izaiteco. Egua, arteztasun edo Justicia, eta premiña, bear edo necesidadea. Lenengo eguia; au da, ciur ciur egon bear zara, diñozuna, diñozun moduan dala. Artuten deusue yuramentu Domeca goshean Pedro eleshan egon bazan, ala ez; bada yuramentu eguiteco an egon zala, ciur ciur egon bear zara an egoala itanduten deusuen denporan: bada dudan bazagoz begoan ala ez, pecatu mortala egingo dozu. Orre-gaitic yuramentu arcen danean, bacoachac esan bear dau gauea berac daquian moduan; ciur daquiana ciur; dudan daquiana dudan; icusia, icusia leguez, eta enzuna, enzuna leguez; ecerbere guichitu, ascotu, gueiagotu edo aldatu bagaric, bere gogoan (memoria),edo ustean daucana leguez; bada aushe da yuramentu eguiagaz eguitea. (25. orrialdetik).

4

Biraoaren ganeco icasbidea

1. Da biraoa Demoniñoari norbaitentzat dei-eguitea, eguitea, edo escatutea gachen bat norberen buruari, edo iñori etorri daquiola: esaten danean leguez: *milla Demoniñoc eroan ayela, eriotza gogorrac artu ayala; biciric biurtu ez adila; lupu gogorrac yo ayala; tripa-ala minac aroala; arren bada gorronci gogorrac nire beguietatic quenduco al au*, eta onelango beste aibat modu, ce eztago guztiac contadu aldaianic. Esaten dan gacha andia bada, eta gogo edo deseoric badago yazo edo etorri daquion, pecatu mortala izango da. Atenciñoz zagoce, Cristiñauac, bada da guztiz bearra emoitera noian doctriñea, bada ain dago zabalduric pecatu genero au ce, derichat Cristiñau guztiz asco doazala beragaitic Infernuetara. Sarri-ascotan etorten oi zare confesetara, eta esaten oi dozue: Aita, nic birao asco bota dodaz, baya eztira biotzetic izan. Baya ecin sinistu leguiquezue. Gura dozue yaquin biotzetic direanez ala ez? Ara emen bada ezaugarri alazocoa. Birao eguiten deutzazun persona ori, laztana badozu, esateraco, adisquide guztizcoren bat, senar edo emaztea nori asco gura deutzazun, eta nogaz baquean bici zarean; nosean bein eta guichitan bada, eta su andi bagaric, señaile da eztireala biotzetic izan. Baya birao eguiten deutzazuenagaz aserraturic bazagoz, aguiari da biotzetic dana. Quenduten deutzue falta andi bat eguiten deutzun gauzaren bat, eta aserraturic orregaitic diñozu: *Arren, bada beso biac yausi (igartu) daquiozala*; ondo aguiari da biotz charra daucazula bere alderaco, eta guiozula yazo daquion. Emoiten badeutzue auciren bat, eta errazoeric euqui ez arren zure erechian, irabazten (ba)deutzue, eta sentimentuz beteric esaten dozu: *Jaungoicoac, niri eguin deustana leguez, pagadu daquiola: arren bada ateric ate icusi daguidala; lucidu eztaiala; auts biurtu daquiola; guesho gogorrean gastadu daguiala*: Oneec eta onelango biraoac gugienetan dira pecatu mortalac.

2. Baderichazu eztauczula orduan yazo din gogoric, esan eguidazu: ¿nos bota oi dozuz birao orreec? Eguin deutzuen gacha gomuta dozunean; a-en ganean berba eguin deizunean; baita onetaraco ceruraguino ponderetan dozue eguin deutzuen gacharen anditasuna, guztiai adierazoten deutzue sentimentuaren anditasuna, ain modutan ce eztozu aurquituco dantzueenetatic bat, ceinec esan eztaguian ecin icusi dozula. (33. orrialdetik).

5

Lemoako sermoe-liburutik hartutako zatitxo bat

Ceinbat onelango promes gaisto San Antonio Urkiolaraco, Aranza-raco, Santa Eufemia Aillesticoraco, San Joan Gastelu-gacheraco, Santo

Cristo Lezocoraco, ta basterretaraco, gazteac eguiten dituezan eta ascoren arimeen galtzaigarriraco! Gurasoac, contuz: ez ichi seme-alabai promesen achakiagaz alango lecuetic ibilten. Eztira promes onac: eta eztauke indarric: eta eukita berè ceuen escuan daucazue indarguetea, ta eragoztea, bapere pecatu bagaric; ta pecatu bagaric ez-ece, baita Yaungoicoaren aurrean ondo dan, ta bear dan gauza bat eguiten dozuela.

(Doctrina del 2º mandamiento sobre el juramento y el voto).